**ALKATETZA DEKRETUA**

*2025 000001697*

**Xedea**
**2025-04-30(e)ko OSOKO BILKURA** deialdiaren gai zerrenda osatzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2023ko uztailaren 5eko Udal Osoko Bilkuran osoko bilkuren aldirotasuna finkatzea onartu zen. Aldirotasunaren inguruan, hain zuzen ere, hauxe onartu zen:
"LEHENENGOA: Osoko Bilkuren aldirotasuna modu honetan finkatzea, lehentasunez:
Hilero, azken ostegunetan 18etan, salbu eta ekaineko eta uztaileko osoko bilkurak goizez izango direla 8.30tan.
Abuztuan eta abenduan ez da osoko bilkurarik egongo.
(….)"

Bigarrena: 2025eko apirilaren 30ean ez ohiko osoko bilkura egiteko beharrizana adierazi zen, hain zuzen ere, martxoan ez zelako osoko bilkurarik egin, eta beharrezkoa ikusi da egitea deialdi honetan doazen gaiak onartu ahal izateko.

Hirugarrena: 2025eko apirilaren 11ko 1619 Alkatetza Dekretuz ez ohiko osoko bilkuraren deialdia egin zen eta gai zerrenda onartu zen.

Laugarrena: Deialdia egin ostean gai zerrendan beste puntu bat sartzeko beharrizana azaldu da, hiri hondakinen kudeaketarako Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea, hain zuzen ere.
Gaur egun indarrean daukagun hitzarmena 2025eko apirilaren 29an bukatzen da eta ezinbestekoa da hitzarmen berria onartu eta sinatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzua ematen jarraitzeko. Hori horrela, nahiz eta Lurralde Informazio Batzordeko diktamenik ez izan, premiazkoa da gaia osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzea.

**Argudioak**

Lehena: Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 46. artikuluak eta hurrengokoak osoko bilkuren funtzionamendu arauak jaso ditu. Besteak beste, hurrengoa zehazten du:



CSV: 07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

Sinadurea eta datea
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/04/2025 15:01:55

: 2025000001697
Datea: 16/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

2. En todo caso, el funcionamiento del Pleno de las Corporaciones Locales se ajusta a las siguientes reglas:

a) … el Pleno celebra sesión extraordinaria cuando así lo decida el Presidente o lo solicite la cuarta parte, al menos, del número legal de miembros de la Corporación, sin que ningún concejal pueda solicitar más de tres anualmente. (…)

b) Las sesiones plenarias han de convocarse, al menos, con dos días hábiles de antelación, salvo las extraordinarias que lo hayan sido con carácter urgente, cuya convocatoria con este carácter deberá ser ratificada por el Pleno. La documentación íntegra de los asuntos incluidos en el orden del día, que deba servir de base al debate y, en su caso, votación, deberá figurar a disposición de los Concejales o Diputados, desde el mismo día de la convocatoria, en la Secretaría de la Corporación.

Bigarrena: Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA)k 77 eta hurrengo artikuluetan osoko bilkuraren funtzionamendua arauak garatu ditu.

80. artikuluak zera dio:

> "1. Corresponde al Alcalde o Presidente convocar todas las sesiones del Pleno. La convocatoria de las sesiones extraordinarias habrá de ser motivada."

Hirugarrena: Alkatetzak OSOKO BILKURAko deialdia egiteko eskumena dauka aipatutako artikuluez gain, legeria honen arabera:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 21.1.c) artikulua.
- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 41.4 artikuluetan xedatutakoa.

**Ebazpena**

Goian aitatutakoa kontuan hartuta, honako hau ebatzi dut:

LEHENENGOA: OSOKO BILKURA osatzen dute zinegotziak deitzea ez ohiko batzarrera.

BIGARRENA: 2025eko apirilaren 11ko 1619 Alkatetza dekretua zuzentzea eta deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diren zehaztasunen arabera egin eta bertan agertzen den gai zerrenda osatua onartzea. (Ikusi 1. eranskina.)



CSV: 07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

Sinadurea eta datea
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/04/2025 15:01:55

: 2025000001697
Datea: 16/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

HIRUGARRENA: 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi geroago eta ordu berean deitzea 2. deialdian.

LAUGARRENA: Jakinaraztea zinegotziei asistentzia nahitaezkoa dela, bertaratzea galarazten duen arrazoi justifikaturik egon ezean.

BOSGARRENA: Jakinaraztea deialdia bidaltzen denetik aurrera, udal honetako Egoitza Elektronikoan edo Idazkaritzan eskura daudela gai zerrendako gaiekin zerikusia daukaten espedienteak.



CSV: 07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

Sinadurea eta datea
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/04/2025 15:01:55

: 2025000001697
Datea: 16/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

# BATZAR DEIA

| Deitutako organoa: | OSOKO BILKURA |
| --- | --- |
| **Batzarra:** | Ez ohikoa |
| **Deialdia:** | 1. deialdia |
| **Eguna:** | **2025-04-30** (Asteazkena) |
| **Ordua:** | 17:30 |
| **Lekua:** | Udaletxeko osoko bilkurako areto nagusia |
| **2. deialdia:** | 2025-05-02 (Ostirala) 17:30 |

## GAI ZERRENDEA

1. - Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2025-02-26 OB (02)

2. - Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3. - Energia berriztagarrien kooperatibaren bideragarritasuna aztertzeko komitea sortzea onartzea.

4. - Bermibusa arautzen duen ordenantza fiskala baliogabetzea onartzea.

5. - Bermeoko Udalaren 2025. urteko araudi plana aldatzea onartzea.

6. - Telelanaren araudia aldatzea onartzea.

7. - Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren oinarriak onartzea.

8. - Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak onartzea

9. - 78922642M NAN zenbakidun langileak egindako bateragarritasun eskaria onartzea.



CSV: 07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

Sinadurea eta datea
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/04/2025 15:01:55

: 2025000001697
Datea: 16/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

10. – Hiri hondakinen kudeaketarako Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

11.- 2025/1147 Dekretuaren berri ematea. 2024ko Aurrekontuaren kitapena.

12. - 2025eko 662-1379 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.

13. - Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2025eko otsailaren 18 eta 25, martxoaren 11, 18 eta 25 eta apirilaren 8ko erabakiak.

14. - "Bizkaiko udalen finantzazioa dela eta" udal taldeek aurkeztutako mozioa onartzea.

15. - Eskari eta itaunak.

**Oharra:** sinadurea eta datea orri-oinean .



CSV: 07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012B54400F6X8D7B3X8R7

Sinadurea eta datea
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 16/04/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 16/04/2025 15:01:55

: 2025000001697
Datea: 16/04/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia